

Zaldibiako udalak VLADIMIR PUTINEK UKRAINAREN AURKAKO ERASOA GAITZETSI DU

2022ko otsailaren 24ean, Vladimir Putin Errusiako presidentek Ukrainaren aurkako operazio militarra agindu du.

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, herrialdearen ekialdeko hiri batzuei eraso egin diete eta Kiev hiriburuan ere leherketak entzun dira. Errusiako indarrek muga zeharkatu dute herrialdeko beste toki batzuetan.

Ukrainako Barne Ministerioak jakinarazi duenez, tropa errusiarrak Odessa portu-hirian lurreratu dira, eta hainbat tokitatik ari dira erasotzen, Krimeako Ukrainako penintsulatik barne. Krimeako penintsula 2014an anexionatu zen legez kanpo, eta erasoaldia Errusiatik zein Bielorrusiatik abiatu da.

Gerra hotza amaitu zenetik gatazkarik larriena izan den aldebakarreko eraso horren aurrean, Europar Batasunaren egonkortasuna, nazioarteko ordena eta bakea arriskuan jarri nahi baititu:

udal honek:

1. Estatu subirano baten aurkako gerra-egintza hauek aringarririk gabe kondenatzen ditu.
2. Vladimir Putini inbasioa berehala eteteko eta tropa guztiak Errusiarantz itzultzeko eskatzen dio.
3. Eskatzen die Europako Batzordeari eta Kontseiluari beharrezko neurriak har ditzatela Vladimir Putinek eta haren konplize instituzional, militar, pertsonal edo atzerriko aliatuek, Bielorrusiak kasu, atzera egin dezaten eta EBren eskura dauden tresna guztiekin zigor ditzaten.
4. Diplomaziara itzultzeko eskatzen du, Bakea berrezartzeko eta ondorio suntsitzaile gehiago saihesteko.
5. EBri eta nazioarteko komunitateari Ukrainarako finantza-laguntza eta laguntza humanitaria ematea-